


Heriotzek % 2,8 egin dute behera 2021eko laugarren hiruhilekoan Euskal AEn

2021ean, heriotzek % 4,8 egin zuten behera, 2020arekin alderatuta, eta COVID-19aren ondoriozkoak 1.666 izan ziren eta, aurreko urtean, 3.096

2021eko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEn 6.111 heriotza izan dira, aurreko urteko aldi berean baino % 2,8 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Hiruhileko honetan, 2020ko hiruhileko berean baino 173 heriotza gutxiago izan dira, baina aurreko 10 urteetako – 2010 eta 2019 bitartean– batez bestekoa baino 854 gehiago. 2020aren aldean izan den beherakada horren kausa, nagusiki, COVID-19aren ondoriozko heriotzak % 73 jaitsi direla izan da. Hala ere, COVID-19ak eragindako heriotzaz bestelakoek % 10,4 egin dute gora 2021eko laugarren hiruhilekoan, 2020ko aldi beraren aldean.

Euskal AEko egoiliarren heriotzak, hilabeteka



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Lurraldeen arabera, Gipuzkoa da nabarmenena; bertan, heriotzek hiruhileko honetan % 7,5 egin dute behera, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Bizkaian, % 0,6 egin zuten behera eta, Araban, % 1,3 gora. Sexuaren arabera, 3.110 emakume eta 3.001 gizon hil ziren; alegia, % 0,8 egin zuen gora heriotzak emakumeetan eta % 6,2, behera, gizonetan.

Hiruhileko honetan izan diren heriotzen artean, 6 urtebetetik beherakoak izan ziren eta 100, ehun urtetik gorakoak.

Heriotza-kausak nagusiak tumoreak eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren; 1.701 eta 1.589 heriotza, hurrenez hurren. Alegia, bi horiek heriotzen % 53,8 izan ziren.

Heriotzaren hirugarren kausa arnas sistema da, 426 kasurekin (% 7). Nerbio- eta digestio sistemen kausek eragindako heriotzak % 6,8 eta % 5 izan ziren, hurrenez hurren.

Heriotzen kausak ez ziren berak izan sexuaren arabera; gizonen artean, tumoreak izan ziren lehenengo heriotza-kausak (% 31,1) eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak bigarrena (% 25,9). Emakumeen artean, berriz, alderantziz gertatu zen: zirkulazio-sistemako gaixotasunak (% 29,7) izan ziren kausa nagusia, eta tumoreak (% 21,1), bigarrena.

COVID-19aren ondoriozko 261 heriotza izan dira 2021eko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berean baino % 73 gutxiago

Laugarren hiruhilekoan, 261 heriotza izan ziren COVID-19aren ondorioz, hau da, heriotza guztien % 4,3. 2 taldetan sailkatzen dira: 257, egiaztatutako COVID-19aren ondorioz, eta 4, ustezko COVID-19aren ondorioz. Gainera, beste 31 heriotza izan ziren, eta, haietan, COVID-19a egiaztatutako heriotza-kausetako bat izan zen, baina ez zen funtsezko kausa izan.

Euskal AEko heriotzak, lurralde historikoaren, bizilekuko udalerriaren (>40.000 bizt.), sexuaren eta adinaren arabera, COVID-19rekin lotutako heriotza-kausei jarraiki. 2021/IV

	Heriotzak guztira	COVID-19 guztira	COVID-19 baieztatuta	COVID-19 probalea
Euskal AE / C.A. de Euskadi	6.111	261	257	4
Bizileku-lurralde historikoak				
Araba/Álava	807	24	24	0
Bizkaia	3.282	109	105	4
Gipuzkoa	2.022	128	128	0
Bizileku-udalerria (>40.000 biztanle)				
Barakaldo	314	10	9	1
Basauri	122	0	0	0
Bilbao	1.006	29	27	2
Donostia / San Sebastian	544	24	24	0
Getxo	219	8	8	0
Irun	180	11	11	0
Portugalete	145	7	7	0
Santurtzi	163	6	6	0
Vitoria-Gasteiz	598	17	17	0
Sexua				
Gizon	3.001	151	150	1
Emakumea	3.110	110	107	3
Adina				
40 urtetik beherakoak	52	3	3	0
40 urtetik 59ra	403	21	21	0
60 urtetik 79ra	1.670	91	90	1
80 urte edo gehiago	3.986	146	143	3

Iturria: Eustat. Heriotzen Estadistika

Lurraldean arabera, zifrarik altuena Gipuzkoan izan zen (128); ondoren, Bizkaian (109) eta, gero, Araban (24). Hiriburuei dagokienez, Bilbo nabarmendu behar da (29 heriotza COVID-19ak eraginda), gero Donostia (24) eta, azkenik, Vitoria-Gasteiz (17). Irun (11) eta Barakaldo (10 heriotza) ere nabarmendu beharreko udalerririk dira.

Gizonen heriotza kopurua (151) emakumeena (110) baino handiagoa izan zen; adinaren arabera, nabarmentzekoa da COVID-19ak eragindako heriotzen % 90,8 60 urtetik gorakoen artean izan zela, eta % 55,9, 80 urtetik gorakoen artean.

Heriotza horiek, nagusiki, EAEko ospitaleetan gertatu ziren (% 85,8), eta, ondoren, etxeetan (% 9,2).

2021EKO BALANTZEA

2021eko behin-behineko datuen arabera, 23.073 heriotza izan ziren; haietatik, 11.563 gizonak izan ziren eta 11.510, emakumeak. 2020aren aldean, heriotzen kopurua % 4,8 jaitsi zen. Lurraldeka, ehuneko hori % 9,1ekoa izan zen Araban, % 5,7koa Bizkaian eta % 1,6koa Gipuzkoan. Nabarmentzekoa da heriotzak % 7 areagotu direla 2019aren aldean.

laxo izan ziren heriotzen artean, 35 urtebetetik beherakoak izan ziren; balio hori 2020koa baino baxuagoa da, izan ere, orduan, urtebeteko 39 hil ziren. Bestalde, 100 urteko edo gehiagoko 336 pertsona hil ziren, 2020an baino 4 gehiago.

2021eko behin-behineko datuak kontuan hartuta, Euskal AEko hazkunde begetatiboa negatiboa izan da; izan ere, heriotzek gairitu egin zituzten jaiotzak (8.826 pertsona gehiago). Lurraldeka, Bizkaian biztanle kopurua gutxitu egin zen (5.543 biztanle gutxiago), Gipuzkoak 2.682 biztanle galdu zituen eta Arabak, 601.

2021ean, 1.666 heriotza izan ziren COVID-19aren ondorioz, eta, aurreko urtean, 3.096 izan ziren; haietatik 1.631 berriazko analisi baten bidez egiaztatu ziren, eta 35i ustezko COVID-19a diagnostikatu zitzaizkien.

Azpimarratu behar da COVID-19a hilabete horietako beste 159 heriotzatan ere egon zela, baina ez zela heriotza horien kausa nagusia izan, heriotza-ziurtagiri medikoetan agertzen den bezala eta Osasunaren Mundu Erakundearen heriotza-kausak kodetzeko irizpideak aplikatuta. Gainera, 2021ean hil ziren pertsonetatik 389k COVID-19a izan zuten, baina infekzioa heriotza-unean gairitu zuten zeukatela ulertzen da.

Euskal AEko heriotzak, egoitzako lurralde-eremuaren, sexuaren, adinaren eta heriotza-kausaren arabera (1). 2021/IV




	Oraingo hiruhilekoa (2021/IV)		Aurreko hiruhilekoa (2021/III)		Aurreko urteko hiruhileko bera (2020 / IV)	
	KOP	%	KOP	%	KOP	%
HERIOTZAK	6.111	100,0	5.548	100,0	6.284	100,0
Araba / Álava	807	13,2	676	12,2	797	12,7
Bizkaia	3.282	53,7	3.046	54,9	3.301	52,5
Gipuzkoa	2.022	33,1	1.826	32,9	2.186	34,8
Gizonak	3.001	49,1	2.814	50,7	3.199	50,9
1 urtetik beherakoak	4	0,1	6	0,1	7	0,1
1 -19 urte	9	0,1	3	0,1	7	0,1
20 -39 urte	23	0,4	24	0,4	25	0,4
40 -59 urte	256	4,2	236	4,3	261	4,2
60 -79 urte	1.070	17,5	1.016	18,3	1.196	19,0
80 -99 urte	1.624	26,6	1.518	27,4	1.691	26,9
100 urte eta gorakoak	15	0,2	11	0,2	12	0,2
Emakumeak	3.110	50,9	2.734	49,3	3.085	49,1
1 urtetik beherakoak	2	0,0	6	0,1	4	0,1
1 -19 urte	5	0,1	3	0,1	2	0,0
20 -39 urte	9	0,1	11	0,2	13	0,2
40 -59 urte	147	2,4	141	2,5	146	2,3
60 -79 urte	600	9,8	560	10,1	581	9,2
80 -99 urte	2.262	37,0	1.948	35,1	2.268	36,1
100 urte eta gorakoak	85	1,4	65	1,2	71	1,1
HERIOTZA-KAUSA						
Guztira	6.111	100,0	5.548	100,0	6.284	100,0
Neoplasiak	1.589	26,0	1.604	28,9	1.574	25,0
Zirkulazio sistema	1.701	27,8	1.370	24,7	1.483	23,6
Arnas sistema	426	7,0	335	6,0	279	4,4
Nerbio sistema	417	6,8	355	6,4	356	5,7
Txegoste sistema	303	5,0	250	4,5	269	4,3
Gainerako kausak	1.675	27,4	1.634	29,5	2.323	37,0
COVID-19 baieztatuta	257	4,2	273	4,9	952	15,1
COVID-19 probablea	4	0,1	4	0,1	31	0,5
Bestelakoak	1.414	23,1	1.357	24,5	1.340	21,3
Gizonak	3.001	100,0	2.814	100,0	3.199	100,0
Neoplasiak	932	31,1	950	33,8	970	30,3
Zirkulazio sistema	776	25,9	669	23,8	672	21,0
Arnas sistema	253	8,4	191	6,8	158	4,9
Nerbio sistema	161	5,4	154	5,5	138	4,3
Txegoste sistema	154	5,1	129	4,6	133	4,2
Gainerako kausak	725	24,2	721	25,6	1.128	35,3
COVID-19 baieztatuta	150	5,0	137	4,9	509	15,9
COVID-19 probablea	1	0,0	1	0,0	16	0,5
Bestelakoak	574	19,1	583	20,7	603	18,8
Emakumeak	3.110	100,0	2.734	100,0	3.085	100,0
Neoplasiak	657	21,1	654	23,9	604	19,6
Zirkulazio sistema	925	29,7	701	25,6	811	26,3
Arnas sistema	173	5,6	144	5,3	121	3,9
Nerbio sistema	256	8,2	201	7,4	218	7,1
Txegoste sistema	149	4,8	121	4,4	136	4,4
Gainerako kausak	950	30,5	913	33,4	1.195	38,7
COVID-19 baieztatuta	107	3,4	136	5,0	443	14,4
COVID-19 probablea	3	0,1	3	0,1	15	0,5
Bestelakoak	840	27,0	774	28,3	737	23,9

(1) Hiruhileko honetako eta aurreko hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira

Data 2022ko Maiatzaren 16a

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Bizilekua Euskal AEn zutenen heriotzak. Hileko datuak



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62